



DANI BLANCO

Txillardegiren gorazarrean

Emilio López Adán

Hil berri den adiskideaz idazteko, harekin ikasiaz, harekin izan akordioaz, harekin bizi ametsetaz idatzi nahi nuke. Haren gogortzeko eta familiarekin bat egiteko.

Hasteko, *Txillardegi* abertzalea. Hizkuntzan finkatu aberria eta askatasun politikoan oinarritu erresuma. *Garan* emandako azken elkarrizketan esan zuen: "Estatu bat behar da..." etendura puntu adierazgarriekin. Gisa guztiz, independentzia baino gutxiago deus ez, ametsetan behintzat. Eta amets horien peskizan zer bide egin duen!

Hor dugu *Txillardegi* existentzialista, Unamuno, Kierkegaard, Camus eta Sartrearen irakurlea, Carlos Santamariaren ezagutzailea. Zer sentimendu sakon haren sentimendu agonikoa, frankismoaren gau ilunean euskara galtzeaz zelarik, askoren (eta abertzale askoren) indiferentziaz; zer sentimendu humanista norbanakoaren eta herrien patu kontingenteen gorabehera, edo beharbada hain zuzen gaizki garelako, errebolatu behar dela onartzeko eta jende duintasuna askatasunaren bilaketarekin lotzeko.

Jose Luisek bazekien txiripaz zela euskalduna (kontingentzia), euskaldunen egoera historiko zehatz batean (situazioan) bizi zela, eta, pertsona gisa, unibertsaltasun osoaz, bide egokienaren bila ezkerraren

aukera egin zuen, duintasuna eta askatasuna helburu: demokrazia eta sozialismoa, zanpatuen aldeko aukera etikoa (Bertrand Russellen ildotik). Tresna politiko horiekin eman zien erantzuna bere galdera filosofiko-*ei*. *Txillardegi* ezkertiarra zen, ezkertiar demokrata eta antitotalitarioa. Marxismoarekin izan genituen arazotan, bera izan zen lehenetarikoa ikusmolde orokorren eduki totalitarioa salatzeke, eta lehena Merleau-Ponty bezalako izpiritu azkarrak aipatzeko.

Txillardegi idazlea, eta hainbeste idatzi du! Gogora ditzadan Elsa Scheelen, amodioaren absolutua, haren gizona Pierre, herri zerbitzuko emana, eta bien existentzia tragikoa... Belgikan idatzia delako aipatzen dut, bizitzak eman zigunean bera eta beraren familia ezagutzeko parada, bai eta seriooki euskalduntzeko tirria ere.

Gain-azalki, hitz bat haren azken konpromiso politiko desberdinen aipatzeko. Lizarra-Garazi baino lehen gauza izan zen modeloz aldatzeko beharra aldarrikatzeko eta gauza izan da gero modeloaren aldakuntza laguntzeko, beti ezker abertzale zabal baten barnean, egoera tragiko baten erdian, eta konpromisoak hartzeko gai izaki bere bizitzaren lema mantenduz: duintasuna eta errebolta.

Mila esker, Jose Luis.



1979an Anoetan, HBren mitinean.